

2. SARIA (2005)

AMODIOZKO GUTUNEN ETA ESALDIEN LEHIAKETA



Egilea: **NAHIKARI GABILONDO** (zarauztarra)

Urdanetan, 2004ko urriaren 17an

Egun on, Maria Pilar

Redios! Horretarako ere motza izango naiz noski! Zuk gutuna irakurtzerako, agian, arratsalde onak ere eman beharko nizkizuke, baina egokiagoa iruditu zait "egun on" batekin hastea "kaixo" lehor batekin hastea baino.

Badakit hau irakurtzeak urduri jarriko zaituela, ez baita ohikoa nik ezer idaztea, eta are gutxiago zuri idaztea. Baina ez; ez dizut pekatu aitortu behar. Edo agian bai; pekatutzat hartzen duzunaren arabera izango da hori. Baina tira, hori zeuk erabaki beharko duzu. Eta ez; ez nago burutik egina ere. Zahartzen hasia bai, baina burutik egina ez.

Udazken umelak bultzatu nau paper horitua tiraderatik ateratzera. Ez dakit zuri idazteko ala hainbeste urtetetako oroitzapenak ahanzturatik berreskuratzeko izan ote den, baina nire oroitzapenak, gure oroitzapenak, papereratzeko beharra sentitu dut. Udazkenez ezagutu zintudalako. Gogoan al duzu? Zure ahizpa Maritxuri merkatura lagundu zenion hartan izan zen. Eskatu zenizkidan sagar guztiak izoztu zituen zure begien grisak. Baina nire bihotza ez; nire bihotza urtu egin zuen. Orduan ere ez nintzen gai izan ergel aurpegi hau ezkutatzeko. Totelka adio esanda agurtu zintudan. Hiru aste eta erdi egin nituen zu berriz noiz ikusiko zain. Maritxuri galdetzen nion non ote zenbiltzan, baina ez nuen erantzunik jasotzen. Berriz itzuli zinen arte. Astelehen goiza zen bigarren aldiz ikusi zintudan hura. Orduan, bezperako erromeriak eragindako nekea nabari nuen, artean, beso-zangoetan. Geroztik, ordea, goiz hartan zu ikusteak

eragindako mozkorren ajeak gainetaik kendu ezinik nabil. Bai, bai. Badakit beti izan naizela hitz gutxiko gizona. Eta ez da izan hitz egitea gustatzen ez zaidalako, zer eta nola esan jakitean ez dudalako baizik. Aaaiii... zenbat gauza geratuko ote zaizkit esan gabe.... Baina tira, horregatik ari natzaizu idazten. Esan beharrekorik esan gabe gera ez dadin.

Astelehen goiz hartan astelehenak igande bihurtu zenizkidan; merkatuko lana erromeria. Izan ere, egun bakoitza erromeria berri bat nuen zure aldamenean. Hura zen gozamina, hura! Oraindik ere gogoan dut Eugenio besamotzaren ukuilu atzean lehen aldiz izterra ukitu nizun arratsalde hura! Eta muxu eman eta korrika alde egin zenidaneko beste hura! Ai, Maria Pilar... Zenbat une gozo igaro ote ditugu elkarrekin.... Berrogeita hamar urte. Erraz esaten da gero! Badirudi atzo eman nizula baiezkoa On Joxe Joakinen aurrean. Eta mende erdia daramagu elkarrekin.

Zenbat aldiz galdetu ote didazu maite al zaitudan, eta zenbat aldiz erantzun ote dizut baietz mutur okerrez... Horixe egin baitut ezkondu ginenetik: mutur okerra erakutsi. Gizona gizona baita. Beti jarri didazu afaria mahaian ni etxeratzerako. Beti izan dut alkandora garbi bat armairuko bigarren tiraderan. Zuk baretu zenituen gure Joxemielen, Antonioren eta Maria Luixaren gose-negarrak. Eta zer egin dut nik? Mutur okerra jarri eta gehienez ere baiezko lehor bat erantzun. Horretara natorkizu Maria Pilar: baiezko guztiak egiazkoak zirela ziurtatzera. Inoiz hitzez esan ez dizudan hori esatera. Maite zaitudala esatera. Eta zergatik? Maite zaitudalako Maria Pilar, maite zaitudalako. Neguan, udaberrian, udan eta udazkenean, batez ere udazkenean, maite zaitudalako.

Muxu bat,

Tomas